Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate – Eskola

HEZIKETA: TEORIATIK PRAKTIKARA

Cantera Aparicio Beatriz, Vigo Etxebarria Kattalin
Gasteizko erizaintzako unibertsitate eskolako ikasleak

Gizartearekin kontaktuan egoteko eta heziketa eskaintzeko beharrak proiektu hau bideratzera eraman gintuen

HELBURUAK

- **Unibertsitatean ikasitako heziketa metodoak praktikara eramatea egoera erreal batean.**
- **Arrisku kardiobaskularrekin erlazionaturiko osasun hezkuntza eta sustapenaren konpetentzia lantzea**

METODOLOGÍA

- Bilaketa bibliografikoa egin eta arrisku kardiobaskular bakoitzaren gida liburuxkak egin genituen.
- Taldea bikoteka banatu genuen eta farmaziako fakultatean aritu ginen araketa espezifikoak egiten eta informazioa eta aholkuak eskaintzen.

EUE-ko 10 ikasle

ATCORE-ko elkartea

EMAITZAK:

ATEOREKIN egindako kolaboraziori esker hainbat gauza ikasi ditugu eta hauek, gure lan profesionalean oso lagungarriak izango direlakoan gaude.

Alde batetik, kolaborazioan pazienteekin zuzeneko eta aurrez aurreko komunikazioa izateko aukera izan genuen eta honek, egoeraz jabetzea erraztu zigun, gure autonomia eta auto konfiantza sustatuz. Bestetik, gure ezagutza teorikoak praktikan jartzeko aukera aproposa izan zen.

Azterketa egitera etorri zenari azalpenak, gomendioak eta laguntzak eskaini genizkion, hau da, gure lan profesionalean lehen pausuak eman genituen.

Azkenik, osasun sustapen jorratzearen gainean lan egin genuen eta hau, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gaur egun osasunaren giltzarritzat prebentzioa eta sustapena hartzen baitugu.

ONDORIOAK:

Lan proiektu hau oso lagungarria izan da gure etorkizuneko lanbideari begira. Beraz, beste erizaintza ikasleei honako ikasketa prozesu praktiko hau aurrera eramatea gomendatzen diegu, gure bizitza pertsonalerako eta profesionalerako esperientzia bikaina izan dela uste dugulako.